



COVID-19 TXERTAKETA ESTRATEGIA Euskadiko osasun-sistema

2021eko azaroaren 22an eguneratua

1. LEHENTASUN-ORDENA OROKORRA

Irizpide orokorrak:

Covid19aren aurrean Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluak ematen dituen txertaketa-prozesurako lehentasun-irizpide orokorrak kalteberatasuna eta kutsatzeko arriskuarekiko esposizioa dira, zeharkako ekitate-printzipioa errespetatuz betiere.

Txertaketa-fase honetan, lehenesteko irizpide orokor nagusia adinaren irizpidea da.

1. TALDEA. Adinekoei eta mendekotasun handia duten pertsonen arreta emateko egoitzetako egoiliarak eta horietan lan egiten duen pertsonal sanitarioa eta soziosanitarioa.

Kalteberatasun-irizpideari jarraitzen dio, eta "immunitate-burbuilak" sortzeko txertaketa-prozedurari jarraitu zaio; hau da, zentro osoen arabera jarri zaie txertoa egoiliar guztiei eta langile guztiei.

Protokoloa ezarri da talde horren txertaketarekin jarraitzeko eta, hala, erabiltzaile berriei txertoa emango zaie, egoitzetara sartu aurretik, ahal izanez gero.

2. TALDEA. Esparru sanitarioko eta soziosanitarioko lehen lerroko pertsonala.

Honako arrazoi hauengatik esposizio-arrisku handiena duen pertsonala: (1) COVID pazienteei zuzeneko arreta emateko jarduerak egitea (harreman estua eta esposizio-denbora luzeagokoa), eta (2) SARS- CoV-2 bidezko infekzioa duen pertsona batekin kontaktua izateko probabilitate handiagoa izatea. Talde honetan sartzen da:

- **Esparru sanitarioko pertsonala**, pazienteari begira lan egiten duena, honako ingurune hauetan (barne dela zerbitzu sanitarioak ez diren beste eginkizun batzuk betetzen dituenak —administrariak, garbitzaileak, boluntarioak, ikasleak, etab.):



Lehentasuna	Unitate/zerbitzu motak	Unitateen adibideak
1	Elkarreraginean aritzen da COVID-19a dutela susmatzen den edo baieztatuta dagoen pazienteekin, aurrez aurre nahiz haien lagin biologikoekin.	<ul style="list-style-type: none"> • Intentsiboen eta kritikoen unitateak • COVID-19 unitateak • Ospitaleko larrialdiak • Etengabeko Arretako Gunea / Lehen mailako arreta presentziala • Larrialdietako unitate mugikorak • SARS-CoV-2 txertaketa-taldeak • Infekzio Aktiboa Detektatzeko Probak egiteko taldek • Barne-medikuntzako unitateak, infekziosoak, pneumologia, anestesia... • Egoitzaratutako pazienteen unitateak (psikiatria, egonaldi
		luzea...) <ul style="list-style-type: none"> • Proba osagarriak • Mikrobiologia-laborategia
2	Bereziki kalteberak diren pazienteak artatzen dituen pertsonala	Onkohematologia, nefrologia, hemodialisia, aringarriak, jaioberriak...
3	Beste paziente batzuk artatzen dituen pertsonala eta lagin biologikoekin lan egiten duen pertsonala	<ul style="list-style-type: none"> • Txertaketa-taldeak, barne direla COVID-19aren aurkako txertoak ematen parte hartuko duten laneko osasuneko eta prebentzio-medikuntzako pertsonak • Zerbitzu kirurgikoak • Eguneko ospitalea • Endoskopiak • Analisi klinikoak • Anatomia patologikoa...



4	Bestelako langileak	Azpikontarak barne hartzen ditu, garbiketa izan ezik, hori bere erreferentziako unitatearekin txertatuko baita (halakorik badago)
---	---------------------	---

Lehen mailako profesionalen 2. talde honetan, Osakidetzakoak ez ezik, honako hauek ere sartubehar dira:

- Klinika eta ospitale pribatuetako osasun-profesionalak.
- Itundutako osasun-garraioko enpresetako profesionalak.
- Itsasoko Gizarte Institutuko (IGI) eta Kanpo Osasuneko profesional sanitarioak.
- **Esparru soziosanitarioko pertsonala.** Adineko eta arriskuko pertsonen arreta emateko beste zentro batzuetan lan egiten duen pertsonala hartzen du (1. taldean sartutako egoitzetako ez dena):
 - Ospitale psikiatrikoetako egonaldi luzeko egoitza-unitateak.
 - Nahasmendu mental kronikoetako pazienteen egoitza soziosanitarioak.
 - Komunitate terapeutikoak.

3. TALDEA. Bestelako pertsonal sanitario eta soziosanitarioa.

3.A taldea.

- Lehen mailako arretako ospitale-esparruko langileak, lehen lerrokotzat jotzen ez direnak
—2. taldea—, lan-jardueraren esposizio-arriskuaren eta babes-neurri egokiak hartzeko aukeraren arabera.
- Maskararik gabeko pazienteak 15 minututik gora artatzen dituzten profesional sanitarioak, hala nola estomatologia eta odontologiakoak, hortz-higienekoak, medikuntza estetikoak, logopedak, foniatrak, etab.

3.B taldea.

- Pandemiaren kudeaketan eta erantzunean inplikaturik dagoen eta 2. taldean txertatuz den osasun publikoko zerbitzuetako pertsonala.
- Eguneko zentro soziosanitarioetako pertsonala.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetako pertsonala (desgaitasuna dutenentzako tutoretzapeko etxebizitzak eta beste batzuk).
- Udalen etxeko laguntza-zerbitzuak (ELZ).
- Osasun Saileko, GSINeko eta lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateetako (LIGPM) ikuskapen medikoetako profesional sanitarioak, pazienteak beren eginkizunak betetzeko miatzen dituztenak.
- Lege- eta auzitegi-medikuntza.
- Kontsulta mediko partikularrak, fisioterapiako edo errehabilitazioko kontsultak edo kabinetek, terapeuta okupazionalak, farmazia-bulegoetako pertsonala, psikologia klinikoko kontsultak, podologiako kontsultak, hortz-protetikokoak.
- Osasun-ikuskapeneko, lege-medikuntzako eta auzitegi-medikuntzako zerbitzuak.



- Adineko pertsonen etxebizitza komunitarioetako pertsonala (15 pertsona bainogutxiagoko adinekoen kongregazio erlijiosoak barne).
- Epai judiziala duten adingabeen (16-18 urte) egoitzetako pertsonala. Gazte-justizia.
- Helduen espetxeetako pertsonala.

3.C taldea. Aurretik txertorik jaso ez duten gainerako langile sanitario eta soziosanitarioak

- 3. taldekoek erabilgarri dauden txertoak jarriko dituzte, adina ere kontuan hartuta (Vaxzevriaren kasuan). Une honetan, lehentasuna da 60 urtekoei eta gehiagokoei ahalik eta lasterren ematea txertoa; beraz, egoitzetako pertsonal soziosanitarioei eta esposizio- arrisku oso handia duten lehen lerroko pertsonal sanitarioari (2. taldea) baino ez zaie txertoa emango. 3. taldeko gainerakoak 60 urtekoen eta gehiagokoen txertaketaren ondoren lehenetsiko dira, 50-59 urtekoen aldi berean.

4. TALDEA. Mendekotasun handia duten instituzionalizatu gabeko pertsonak.

III. graduko mendekotasuna duten pertsonak, hau da, laguntza-neurri handiak behar dituztenak, eta gaur egun etxean bizi direnak. Mendekotasun handia duten pertsona horiei haien etxeetan arreta ematen dieten zainzaileek artatzen dituzten pertsonen bisita berean jarri ahalko dute txertoa, aurretik jarri ez badute.

Une hauetan, Janssen-en txertoaren erabilera adostu denez eta, monodosia izanik, zenbait kolektiboren txertaketa errazten duenez, iristeko zailak diren mendekotasun handiko pertsonak, autismo sakona dutenak eta oinarriko patologia dela-eta asaldatzeko arrisku handia duten gaixomentalak lehenetsiko dira.

5. TALDEA. Instituzionalizatu gabeko biztanleria-taldeak:

5.A taldea. 80 urteko eta hortik gorako pertsonak. (1941ean eta aurreko urteetan jaiotakoak).

5.B taldea. 70-79 urte bitarteko pertsonak. (1942aren eta 1951ren bitartean jaiotakoak).

5.C taldea. 66 eta 69 urte bitartekoak (1952aren eta 1955aren bitartean jaiotakoak, biak barne). 60 eta 65 urte bitarteko taldearen ondoren jarriko zaie txertoa.

5A eta 5B taldeetakoek ARNm-ren (Comirnaty edo Modernaren txertoa) txertoak edo Janssen-en txertoa hartu dituzte. 5C taldekoak Vaxzevriaren txertoa hartuko dute, 8. taldea osatu ondoren, baina talde horren txertaketa 5A eta 5B taldeen txertaketarekin amaitzean erabilgarri dauden beste txertoekin osatu ahalko da, hurrengo taldeen txertaketarekin hasi aurretik.

6. TALDEA. Gizartearentzako “funtsezko” eginkizuna duten kolektiboak, lanaldiaren zati bat gutxienez presentzialki egiten dutenak::

Kolektibo horietatik, talde honetan sartzeko dira kutsadurarekiko esposizio-arrisku handiena dutenak, eta honako lehentasun-ordena hau ezartzen da:



6.A taldea.

Segurtasun Indar eta Kidegoak, Larrialdiak eta Indar Armatuak.

- Honako hauek barne hartzen ditu: Guardia Zibila, Polizia nazionala, autonomikoa eta lokala, suhiltzaileak, Segurtasun Indar eta Kidegoetako teknikariak, Babes Zibileko, Larrialdietako eta Indar Armatuetako profesionalak.

6.B taldea.

- Haur Hezkuntzako eta premia berezietako irakasleak (barne direla bai irakasleak, bai ikasleei arreta ematen dieten bestelako profesionalak).

6.C taldea.

- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak (barne direla bai irakasleak, bai ikasleei arreta ematen dieten bestelako profesionalak).

Talde horiei, txertoen eskuragarritasunaren neurrian, 5. taldearekin batera hasiko zaie txertoa ematen.

Txertaketa-pautarekin hasteko dauden 6. taldekoek ARNm txertoak edo Janssen-en txertoa hartuko dituzte (≥ 40 urte).

7. TALDEA. Arrisku oso handiko baldintzak dituzten 70 urtekoak eta gutxiagokoak

16-18 urtetik aurrera arrisku oso handiko baldintzak dituztenek 5B taldeko pertsonekin paraleloan (70 eta 79 urte bitartekoak) hartuko dute txertoa. Eguneratze honetan, 12 urtetik aurrera arrisku oso handiko baldintzetan dauden pertsonen txertaketa gomendatzen da.

Honako baldintza hauek hartu dira kontuan, arriskuaren eta egingarritasunaren arabera:

- Zelula ama hematopoietikoen transplantea. Organo solidoaren transplantea eta organosolidoaren transplanterako itzarote-zerrenda.
- Giltzurruneko tratamendu ordeztaila (hemodialisia eta peritoneo-dialisia).
- Gaixotasun onkohematologikoa, kimioterapia zitotoxikoarekin, metastasikoarekin edo tumore torazikoek eragindako erradioterapiarekin tratamenduan dagoen eta pneumonitisa izateko arriskua duen organo solidoko minbizia.
- Immunoeskasia primarioak.
- 200 cel/ml baino gutxiagoko infekzioa GIBarekin, eretrobirusen aurkako tratamendueraginkorra eta birus-karga detektaezina izan arren.
- Down sindromea, 40 urte eta gehiago dituena.
- Fibrosi kistikoa.

8. TALDEA. 60 eta 65 urte bitartekoak (1956aren eta 1961aren bitartean jaiotakoak, biakbarne)

1956an jaiotakoei Vaxzevriaren txertoa jartzen hasi zaie, eta jaiotza-urtean aurrera egiten doa, erabilgarri dauden dosien arabera. Vaxzevriaren lehen dosia jaso duten



talde honetakoei txerto beraren bigarren dosia emango zaie, pauta osatzeko.

9. TALDEA. 50 eta 59 urte bitartekoak (1962aren eta 1971aren bitartean jaiotakoak, biakbarne)

Erabilgarri dauden txertoak erabiliko dira eta, oraingoz, Vaxzevria baztertuko da, 60 urtetikbeherakoetan erabiltzeko murrizketak indarrean jarraitu bitartean.

10. TALDEA. 40 eta 49 urte bitartekoak (1972aren eta 1981aren bitartean jaiotakoak, biakbarne)

Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Publikoko Batzorde Iraunkorrek, ekainaren 1eko ezohiko bilkuran, Janssen erabiltzea onartu du 40 urteko edo hortik gorako pertsonen kasuan, eta une hauetan adin talde horretarako erabiltzen den txerto bakarra da, beraz.

11. TALDEA. 30 eta 39 urte bitartekoak (1982aren eta 1991ren bitartean jaiotakoak, biak barne)

Erabilgarri dauden ARNm txertoak erabiliko dira. Janssen erabili ahaliko da Eguneratze honen 4. atalean jasotako kasuetan.

12. TALDEA. 20 eta 29 urte bitartekoak (1992aren eta 2001aren bitartean jaiotakoak, biak barne)

Erabilgarri dauden ARNm txertoak erabiliko dira. Janssen erabili ahaliko da 4. atalean jasotako kasuetan.

13. TALDEA. 12 eta 19 urte bitartekoak (2002aren eta 2009aren bitartean jaiotakoak, biak barne)

Erabilgarri dauden ARNm txertoak erabiltzen dira, kontuan hartuta hasiera batean Comirnaty bakarrik zegoela baimenduta 12 eta 17 urte bitartekoentzat, baina abuztuaren 3tik aurrera Moderna txertoa ere erabil daiteke, fitxa teknikoa aldatu baitzuen.

Pfizerren eta Modernaren fitxa teknikoetan berariaz hala adierazita dagoenez, 2009an jaiotakoei (12 urte) euren urtebetetze egunetik aurrera jarriko zaie lehenengo dosia, ez lehenago.

Txerto gehiago erabilgarri egongo direla kontuan hartuta eta egoera epidemiologikoa eta udako sasoiari sartu garelako aintzat hartuta, antolamenduko eta bideragarritasuneko kontuak direla eta, gainjartzen joan ahaliko da 11., 12. eta 13. taldeen erakarpena.

Migratzaileak, Euskadin erroldarik gabe bizi direnak edo familia birbatzeagatik egoera erregularrean daudenak edo etxegabeak



Kolektibo horietarako, txertaketarako hitzordua lortzeko duten zailtasuna kontuan hartuta, bi estrategia ezarri dira, haien txertaketa eraginkorra lortzeko. Lehen estrategia, egoera irregularrean dauden migratzaileei, erroldatu gabeei edo osasun-aseguramendurik gabeei zuzentzen zaiena, Biltzen-ek koordinatzen dituen GKEen bidez haien oinarritzko datuak eta harremanetarako telefonoak zuzenean telefonoz hitzordua eman ahal izateko gordailu batean jaso ahal izatean datza. Bigarren estrategia etxegabeei zuzentzen zaie, eta hitzordurik gabe eta gaua ematen duten aterpetxeetan txertatzean edo, kalean lo egiten badute, jantoki sozialetan erakartzean datza. Talde horri Janssenen dosi bakarra jartzen zaie.

2. PERTSONA-TALDE BAKOITZEAN ERABILI BEHARREKO TXERTO-MOTAK

Lau txertoen ezaugarriak eta haietako bakoitzaren eskuragarritasuna kontuan hartuta, honakohau da erabilerarik egokiena, lehenetsitako pertsona-taldeen arabera:

- **ARNm txertoak (Pfizer eta Moderna):**

Honako talde hauetako pertsonak: 1, 2, 3.A., 3.B eta C (60 urtetik beherakoak), 4, 5 (60 urtetik gorakoei AstraZenecarekin paraleloan) eta 7, 9,10,11,12 eta 13.

Pfizer AstraZenecaren lehen dosiarekin txertatutako 60 urtetik beherakoen bigarren dosirakoerabiltzen ari da.

- **Vaxzevria txertoa (AstraZeneca):**

Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren 2021eko apirilaren 7ko eta Osasun Publikoko Batzordearen 2021eko apirilaren 8ko akordioaren bidez, **txerto hau 60 urtetik beherakoetan erabiltzeari utzi zaio**. Txerto horren erabilera honela zehaztuta geratzen da.

Eguneratze data honetatik aurrera, ez da pertsona-talderik txertatuko txerto honekin.

- **Janssen;** txerto honen dosiak eskuragarri daudenean eta erabileran mugarik eta murrizketarik ez dagoenean, ARNm-ren edo AstraZenecaren txertoekin paraleloan eman ahalko dira.

Eguneratze data honetatik aurrera, ez da pertsona-talderik txertatuko Janssen txertoarekin.

Aurretik Janssen edo Vaxzevriarekin immunizatutako pertsonen oroitzapen-dosiak Pfizer edo Moderna txertoekin jarriko zaizkie.

Ebidentzia zientifikoak erakusten du txertaketarako lehenetsitako eta infekzio asintomatikoaren edo sintomatikoaren aurrekaria duten pertsonen, larritasuna gorabehera, erantzun immune oso ona eskuratzen dutela dosi bakarrarekin, eta ez dela bigarren dosiarekin hobetzen. Beraz, nahikoa ebidentzia dago dosi bakarra emateko aurretiko infekzioaren aurrekaria duten 65 urteko edo gutxiagoko pertsonen. Eutsi egiten zaio, beraz, 65 urteko edo gehiagoko pertsonentzako bi dosien pautari.



3. ASTRAZENEKAREN LEHEN DOSIAREKIN TXERTATUTAKO 60 URTETIK BEHERAKOEN BIGARREN DOSIA

Osasun Publikoaren Batzordeak, pasa den apirilaren 30ean, bigarren dosia emateko tartea pertsona horietan 16 astera luzatzea erabaki zuen, aldi baterako, eman beharreko txertoaren erabakia hartu aurretik informazio gehiago izateko.

Ondoren, lehen dosi gisa AstraZeneca eta bigarren gisa Pfizer ematean immunizaziorako gaitasunari buruzko saiakuntza kliniko baten ebidentziak jaso ondoren, Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldean Arteko Kontseiluak honako hau erabaki zuen: egoera horretan dauden pertsonen Pfizer emango zaie bigarren dosi gisa, hura emateari uko egin ezear; kasu horretan, immunizazioa AstraZenecarekin osatuko zaie, baina, horretarako, aurretik, baimen informatua eman beharko dute, Pfizer emateari uko egin dioten pertsonen sinatua.

Baimena sinatzeko motiboa segurtasuna da; izan ere, AstraZeneca aukeratzen duenak, 60 urte beherakoa izanik, arriskua hartzen du (ez da batere ohikoa gertatzea, baina gerta liteke) tronbosi larriak jasateko, eta arrisku hori ez dago Pfizerrekin.

Oraintsu argitaratu diren azterlan batzuek erakusten dute lehen dosi gisa Vaxzevria hartu ondoren bigarren dosi gisa ARNm txerto bat jarri ondoren antigorputz neutralizatzaileen erantzun immune hobea lortzen dela. Erantzun hori Vaxzevriarekin emandako bi dosien pautarena baino handiagoa da. Gainera, aldagai berrien aurreko erantzuna ikusi da handiagoa dela pauta heterologoarekin.

4. COVID-19AREN AURKAKO TXERTAKETA-PAUTA OSOA JASO DUTEN PERTSONEI DOSI GEHIGARRIAK ETA OROITZAPEN-DOSIAK JARTZEKO JARRAIBIDEAK

Joan den irailaren 7an, Osasun Sistema Nazionaleko Osasun Publikoko Batzordeak onartu zuen txertaketa-pauta beteta zuten pertsona-talde zehatzetan dosi gehigarri bat ematea.

Garrantzitsua da bereiztea oroitzapen-dosia, lehen txertaketari erantzun zioten pertsonentzat, eta dosi gehigarria, lehen txertaketari behar bezala erantzun ez zioten immunitate-sistema ahuldua dutenentzat. Oroitzapen-dosia txertatutako pertsonen emango litzaizkieke, denborarekin galduz gero, babes berrezartzeko. Dosi gehigarriak, aldiz, lehen txertaketa-pautaren parte izango liriteke, eta sistema immunea ahulduta izateagatik herritar guztientzat ezarritako txertaketa-pautaren arabera babes-mailara iristen ez direnei emango litzaizkieke.

Hala ere, adostasun handia dago ahultasun handieneko populazio-talde espezifiko jakin batzuetan **dosi gehigarri bat ematea** egokitzen jotzeko:

- Ebidentzia zientifiko zabala dago baieztatzeko **adinekoek** erikortasun, ospitaleratze eta heriotza arrisku handiagoa dutela COVID-19aren ondorioz, eta egoera hori larriagotu egiten da pertsona horiek **instituzionalizatuta** badaude.
- Ebidentzia zientifikoak erakusten duenez, **immunosupresio larriko egoeran dauden kasuan** (guraso hematopoietikoen transplanteak, organo solidoaren transplanteak, giltzurrun-akats kronikoa, GIB bidezko infekzioa CD4 (< 200/ml) gutxi zenbatuta, immunoeskasia primario batzuk eta terapia immunosupresore jakin batzuk dituztenak), aukera asko dago ohiko txertaketa baten aurrean erantzun immune



desegokia izateko (serobihurketa).

Instituzionalizatutako adinekoen txertaketa gehigarria amaitu ondoren, **70 urteko edo gehiagoko pertsonen** oroitzapen-dosi batekin hasiko da txertaketa (hirugarren dosia kasu gehienetan).

Oroitzapen-dosiaren txertaketa aurreratuta dagoenean 70 urtetik gorakoen artean, kanpaina hori **60 urte edo gehiagoko pertsonetara** zabalduko da.

Gripearen aurkako txertaketa-kanpaina eta COVID-19aren aurkako indartze-dosia jartzeko kanpaina data beretan izango direnez, Osakidetzak eskainiko du **COVID-19aren aurkako txertoaren hirugarren dosia eta gripearen aurkako hirugarren dosia aldi berean** ematea, bi baldintza betetzen diren kasuetan: 70 urte edo gehiago izatea eta COVID-19aren aurkako txertoa duela 6 hilabete baino gehiago jaso izana.

Bestalde, txertaketa-gunean gripearen aurkako txertoa hartzen duten pertsonen 15 minutuko egonaldia derrigorrezkoa ez den bezala, COVID-19aren aurkako indartze-dosiarekin txertatzen direnentzat ere ez dira nahitaezkoak, baldin eta ez badute erreakzio alergiko larrien aurrekaririk. Gainerakoei gomendio hauek baino ez zaizkie emango: txertoa jarri eta hurrengo 15 minutuetan ibilgailu motordunak gidatzea saihestea eta denbora horretan txertaketa-puntuaren inguruan egotea.

Azkenean, oroitzapen-dosi bat emango zaie Janssenekin immunizazioa jaso zuten pertsoneri (dosi bakarra). Oroitzapeneko bigarren dosi hori ARNm txertoekin egingo da.

5. KONTUAN IZAN BEHARREKO GOGOETAK

- 60-69 urte bitarteko pertsonen Vaxzevria dosi bat jaso badute eta oraindik bigarren dosia jartzeko zain badaude, ARNm txertoekin egingo da.
- Kontraindikaturak dago Vaxzevriaren bigarren dosia hartzea aurretiko dosia hartu ondoren tronbosi-sindromea tronbozitolopeniarekin jasan dutenak. Kontraindikaturak dago bektore birikoen txertoak ematea ihes kapilar sistemikoaren sindromearen aurrekariak dituztenei. Ez da komeni adenobirusaren bektoreen txertoak ematea (Vaxzevria eta Janssenen txertoa) heparinaren eragindako tronbozitolopeniaren aurrekariak dituztenetan.
- Haurdun dauden emakumeen eta edoskitzaroan dauden emakumeen txertaketa ARNm txertoekin egingo da, dagokienez, dagokien lehentasun-taldearen arabera eta haurdunaldiaren edozein unetan.
- Jada ez dago Janssen txertoen dosirik. Ez da pertsona-talderik txertatuko harekin.
- Janssenekin immunizatutako pertsoneri oroitzapen-dosiak Pfizer edo Moderna txertoekin jarriko zaizkie.
- Duela gutxi, ARNm txertoa zabaldu zaie 12 urtetik gorako pertsoneri. Gogorarazten da talde horretako pertsonen legezko tutoreen batekin batera joan beharko dutela txertoa jartzera, edo, bestela, adingabeari txertoa jartzea onartzen duen dokumentu bat aurkeztu beharko dutela, legezko tutoreen batek sinatuta.



- Nahiz eta argi ez dagoen txertaketak COVID iraunkorra duten pertsonetan izan dezakeen onura, ez dirudi okerragotu egiten duenik gaixotasunaren bilakaera eta hobetu dezakeela uste da. Hori dela eta, txertaketa gomendatzen da (dosi batekin edo birekin, adinaren arabera), biztanleria-taldearen arabera dagokienean.
- 65 urteko edo gutxiagoko pertsonetan, infekzio sintomatikoko edo asintomatikoko aurrekariak badituzte, txertoaren dosi bakarra emango da. Dosi bakar hori sintomak hasi zirenetik edo infekzioa diagnostikatu zen egunetik bi hilabete igarotzen direnetik aurrera eman ahal izango da. Ez da gomendatzen proba serologikoak edo biologikoak egitea txertaketaren aurretik edo ondoren.

Neurri horrek ez du urratzen txertaketa-estrategiako lehentasun-irizpidearen ekitate-printzipio gidaria, ezartzen baitu lehentasuna izango dutela inolako eta ezelako immunitatetik ez duten pertsonak gaixotasuna harrapatzean immunitatea hartu dutenen gainetik. Euskadiko txertaketa-prozesuaren egungo egoeran, kontuan hartuta askoz ere gehiago direla eskaintzen diren hitzordua hitzordu horiek eskatzen dituzten herritarrak baino, aurretik infektatutako pertsonen txertaketa 6 hilabetetik 2 hilabetera aurreratzeak ez du eragozten ez atzeratzen txertoa hartzeko dagoen edozein pertsonak lehenengo dosia hartzeko hitzordua hartu ahal izatea.

- Lehenengo dosia hartu ondoren COVID-19ak infektatzen dituen 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, sintomak izan ala ez izan, txertaketa aldi normalean osatu behar da, edo sintomak desagertutakoan edo isolamendua amaitutakoan. 65 urteko edo hortik beherako pertsonen kasuan dosi bakarra jarri behar da, infektatu aurretik lehenengo dosia hartu izan ez balute bezala. Eta, aurretik infektatutakoan kasuan bezala, sintomak hasi zirenetik edo testean positibo ematen dutenetik bi hilabetera eman ahal izango zaie txertoa.
- Laneko baja eta txertaketa: baja COVID-19az bestelako edozein motibo bada eta txertoa jartzeko dei egiten badizute, joan ahalko zara, txertoa jartzeko kontraindikazio klinikorik ez baduzu eta zure egoera klinikoak horretarako aukera ematen badizu.